

NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA


# Mussoliniren gorpu ibiltaria

**G**iulino di Mezzegra (Italia) 1945eko apirilaren 28a. Benito Mussolini diktadore faxista eta Clara Petacci maitalea fusilatu zituzten, Suitzara ihesi zihoazela partiano komunista talde batek atzeman ondoren. Biharamunean, Milango Loreta plazako gasolindegian, gorpuak buruz behera zintzilik jarri zituzten, eta jendetzaren esku utzi.

Handik egun batzuetara Nazio Askapenerako Batzordeak diktadorea Milango Hilerri Nagusiko izenik gabeko hilobi batean ehortzea erabaki zuen, haren jarraitzaileen peleginazio gune bihur ez zedin. 384. hilobian sartu zuten, baina handik urtebetera, 1946ko apirilean, faxista talde batek gorpuak non zegoen jakin zuen. Mussoliniren arrastoak lapurtu eta auto baten maletategian sartu zituzten, haiekin zer egin garbi jakin gabe.

Egoera (eta kiratsa) eutsiezina zenez, Sant'Angelo komentuko apaiz bati uztea erabaki zuten. Hasieran, apaizak ez zuen ezer esan, baina lapurretaren berri zabaldu zenean, Milango artzapezpikuari esan zion diktadorearen gorpuak hantxe zegoela. Elizako goi karguak gobernura jo zuten zuzenean. Orduan, gorpuak isilpean hiriko aldirietako beste komentu batera eramatea erabaki zuen, Cerro Maggiorean.

Baina han ere ez zuen luzaroan atsedeen hartzeko aukerarik izan. Aldarepean presaka ehortzi zuten, berehala meza entzutera hurbildutakoak kiratsa suma-



FRANCISCO FRANCO ETA BENITO MUSSOLINI BORDIGHERAN (ITALIA), 1941EAN. MUSSOLINIREN GORPUA BATETIK BESTERA IBILI ZEN URTETAN; FRANCORENA MUGITZEKO, ORDEA, OZTOPOA ETA TRABA BESTERIK EZ DAGO.

tzen hasi ziren eta komentuko arduradunak gutxitan erabiltzen zen gela bateko armairuan sartu zuen *Ducea*. Eta hantxe egon zen 1957. urtea bitartean.

Urte hartan gobernuak familiaren eskakizunei men egin zien, Mussolini armairutik atera zuten, eta Predappio jaioterrian familiak zeukan kaperan ehortzi. Hantxe dago egun, eta urtero milaka kuxkuxero eta jarraitzaile hurbiltzen dira bertara. Monumentu arranditsu batean ez dago, behintzat, eta 1952an Italiako Gobernuak faxismoaren gorespina lege debekatu zuenez, peleginazioak legea hausten duela iritziko baliote, neurriak

hartzeko aukera legoke, 2011n Alemanian Rudolph Hessen arrastoeekin egin zuten moduan.

Hitlerren albokoa Spandauko espetxean hil zen 1987an eta orduz geroztik Wunsiedel herriko hilerrian zegoen ehortzita. Neonazien peleginazio eta omenaldi gune bilakatzen ari zenez, 2011ko udan, hilobia eraitsi zuten, eta Hessen hezurak hobitik atera, erraustu eta itsasoan bota zituzten.

Bitartean, Madrilgo San Lorenzo del Escorial udalerriko Erorien Haranean, diru publikoz mantentzen den ondarean... ●



## Bizitzaren historia berridazten

Qingjiang (Txina) aztarnategian duela 518 milioi urteko fosilak aurkitu zituzten 2007an. Orain, azken 12 urtetan egindako lanaren emaitza argitaratu berri dute *Science* aldizkarian.

Orotara 101 espezieren fosilak aurkitu dituzte eta horietatik erdia baino gehiago ezezagunak ziren orain arte; besteak beste, argazkian ageri den

*Daihua sanqiong* espeziea, marmoken, ktenofooren eta esponjen arbasoa izan litekeena. Hipotesia baieztatuz gero, ktenofooroak –orrain marmokak ere deitua– esponjen aurrekoak eta, hala, animalia formarik zaharrenak lirateke. Horrenbestez, Kanbriar Aroko fosil hauek bizitzaren zuhaitzaren adar zaharrenak aldatzea eragin dezakete. ●